

Prensa oharra

Nota de prensa



Tokiko Gobernu Batzordeak onartu dituen gaiak

Abegi Etxea, Garraio tituluak, Zuhaztien plana, IOM Eraikina, Suhiltzaileentzako ibilgailuak

Abegi Etxea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Abegi Etxearen Araudi Proiektua. Indarrean dagoen araudia 2004an onartu zen, eta, beraz, beharrezkoa da erregelamendu berri bat onartzea, indarrean dagoen sektoreko araudira egokitzeko.

Hain zuzen, erregulazio berriak modu esanguratsuan eragiten dio harrera-zerbitzuaren definizioari; izan ere, 2004ko araudian, zerbitzu hori eguneko 24 orduko egonaldi gisa taxutu zen, eta erregulazio berrian, ostera, bi zerbitzuek osatzen dute hura: gaueko harrera-zerbitzuak eta eguneko arreta-zerbitzuak.

Bigarrenik, araudiak familientzako harrera zerbitzua ere arautzen du. Zerbitzu hori, prestazioen eta zerbitzuen zorroan berariaz jasota ez badago ere, Udalak ematen du, gure testuinguruan sortu den gizarte-errealitateari erantzuteko, hau da, adingabeak dituzten eta etxerik gabe dauden familien presentziari erantzuteko.

Hirugarrenik, bazterketa egoeran dauden pertsonetikiko esku hartze sozialaren paradigma berrietara egokitzen da araua. Alde batetik, neurri handi batean jadanik aplikatzen ziren gai batzuk erantsi zaizkio araudiari, eta, horrenbestez, estaldura juridikoa eman zaie, segurtasun juridikoaren eskakizunetara egokituta (adibidez, egoera jakin batzuetan alkohola kontsumitzeko baimenari dagokionez, adingabeak sartzea pertsona heldu arduradun batekin badaude, edo egoera jakin batzuetan etxeko animaliak izatea). Beste alde batetik, aldatu eta garatu egin da zehapen-araubidea, erabiltzaileen benetako egoerara eta haiek gizarteratzeko helburura egokitzeko.

Garraio tituluak

Tokiko Gobernu Batzordeak turismo garraiorako erabilera orokorreko garraio erregularreko titulu baliodun hauek **kentzea** onartu du: Autobus turistikorako txartela helduentzat, autobus turistikorako txartela haurrentzat (5-12 urte), tren simulatuko txartela helduentzat eta Tren simulatuko txartela haurrentzat (5-12 urte).

Gobernu Batzordek onartu du baita turismoko erabilera orokorreko hiri garraio erregularreko titulu hauek **sortzea** kendutako horien orde:

Prensa oharra

Nota de prensa

- Turismo autobuseko txartela (24 ordu): Txartel hori duenak autobusa egun osoan (24 orduetan) erabiltzeko eskubidea du, txartela autobusean baliozkotutako unetik aurrera, eta nahi duen geltokian jaisteko eta igotzeko modua, aurrez zehaztutako ibilbidearen barruan, betiere.
- Turismo autobuseko txartela (48 ordu): Txartel hori duenak autobusa 48 ordu naturaletan erabiltzeko eskubidea du, txartela autobusean baliozkotutako unetik aurrera, eta nahi duen geltokian jaisteko eta igotzeko modua, aurrez zehaztutako ibilbidearen barruan, betiere.
- Turismo autobuseko txartela (azkeneko errotazioa): Txarte hori duenak autobusa azkeneko errotazioan bakarrik erabiltzeko eskubidea du, eta ezarritako ibilbidearen hasierako/amaierako geralekuan beste inon ere ez igotzeko edo jaisteko modua.
- Turismo tren simulatuko txartela: Txartel hori duenak tren hori behin bakarrik erabiltzeko eskubidea du, ibilbidean geldiuenerik egin gabe, ezinbestekoak izan ezik.
- Turismo tren simulatuko txartela (ibilbide bereziak): Txartel hori duenak behin bakarrik erabil dezake txartel hori tren horretan, dena delako ibilbide berezian jarrita diren geralekuetan jaitsiz eta igoz, geralekurik bada.

Onartu da, halaber, garraio erregularreko zerbitzuagatik zergazkoak ez diren prestazio publikoak arautzen dituen Ordenantzaren proiektua aldatzeko proiektua, titulu horietarako nahiz turismokoa ez den garraio erregularreko titulu digital berrietarako tarifak ezartzen dituen.

Zuhaitzen plana

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du hiriko hiri zuhaitzen Plan Zuzentzailea idazteko zerbitzua kontratatzeko espedientea, 112.118 euroko lizitazio aurrekontuarekin eta 12 hilabeteko egikaritze epearekin.

Zuhaitzen Plan Zuzentzailearen helburu nagusiak hiriko zuhaitzen egungo egoeraren diagnostiko ahalik eta zehatzena egitea da, arazoak eta gatazkak identifikatuz eta konponbideak proposatuz, ekonomikoki kuantifikatuz, eta kudeaketa hiri jasangarri eta arrazionalaren zuhaitzi eredurantz bideratuko duena.

Egungo egoeraren azterketatik abiatuta, Plan Zuzentzaileak jarduketa plan zehatzak eta egokiak ezarriko ditu hiriko eremu bakoitzerako eta gunen tipologia bakoitzerako, eta egikaritze faseetarako beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabideak identifikatuko ditu.

Prensa oharra

Nota de prensa



IOM Eraikina

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Gureak Lanean SA enpresari IOM-ERAIKINA eraikina (Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Zerbitzu Dibisioa handitzea) eraikitzeko baimena ematea Illarra 4 (Goienetxe) bidean, obrak amaitzeko bi urteko epearekin.

Suhiltzaileentzako ibilgailuak

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du PSISZ-erako bi ibilgailuren hornidura kontratatzeko espedientea onartu du, 120.000 euroko lizitazio aurrekontuarekin eta 12 hilabeteko entrega epearekin.

Kontratuaren xedea bi ibilgailu hornitzea da: 4x4 mendiko erreskaterako ibilgailua (65.000 euro) eta aginteentzat lur orotako 4x4 ibilgailua (55.000 euro).

Donostia, 2022ko apirilaren 5a